



NI ETA NIRE TALDEA


| | | | |
|---|--|---|--|
|  | |  | |
|---|--|---|--|

**1. Nire BAT egunkaria**

Talde bat eraikitzean denon artean izandako akordioak errespetatzeak ahaldu egiten du taldea. Hori berma daiteke **lankidetzan oinarritutako konpromisoari helduz gero**.

Horretarako, —guztien jokabideen jarraipenean denok parte har dezaten—, baliabide egokiak sortu behar dira.

Baliabide horiek era sistematikoan erabiliko dira eta lagungarriak izango dira adostutako jokabideak ohitura bihurtzeko. Kasu honetan, **norberaren BAT egunkaria** erabiliko da.


Jarduera hau egin baino lehen, komeni da  ariketa egitea, gelan giro lasaia egon dadin eta ikasleek horrelako ariketak egiteko ohitura har dezaten.

HELBURUA

- Ikasle guztiek **BAT** egunkaria izatea, nork bere jokabideen jarraipena egiteko.
- Parte-hartze aktiboa izatea.

GARAPENA

Ikasle bakoitzak koaderno bat ekarriko du eta azalak margotuko ditu. Marrazketa libre izango da, baina baldintza bakarra izango du: marrazkian **BAT** logoa sartzea. Jarduera hau egiteko, ordenagailuak erabil ditzakete, nahi izanez gero bertatik ideiak hartzeko.

Aurreko  jardueran egindako errespetuari buruzko 12 arauen kopia emango zaie ikasleei, koadernoaren lehen orrian itsatsita izan ditzaten. Astelehenero lehenengo orduan eta ostiralean azken orduan, 5 minutu emango zaizkie arauak irakurtzeko eta koadernoan idazteko horien inguruan pentsatu, sentitu, egin, ikusi dutena.

Gogoratuko zaie koadernoan erabat pertsonala dela eta inork ez duela beste inorena irakurtzeko eskubiderik, jabearen baimenik ez badu.

Irakasleak ikasleei gogoraraziko dizkie “**Ni eta nire taldea**” blokeko jardueren helburuak: ikaskideak hobeto ezagutzea eta denon artean giro ona izateko ahaleginak egitea.

Arbelean, denon artean, esaldi hau osatuko dute: